



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

45. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Maiatza



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskal Herriko EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordea Donostian

Joan den maiatzaren 27an, 2007-2013 Euskal Herriko EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordearen hirugarren bilera egin zen Donostiako CIC Nanogunean. Bertan izan ziren Europako Batzordeko REGIO Zuzendaritza Nagusiko eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioko ordezkariak, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako (Programa kudeatzen duen agintaritza) eta hiru Foru Aldundietako ordezkariak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, Ogasun eta Finantzen Departamentuko Sebastián Zurutuzak, Bittori Zabalak eta Enrique Michelenak parte hartu zuten.

Puntu nagusi gisa, 2009 urteko gauzatze-txostenari heldu zitzaion bilera hartan, batera finantzatutako proiektuen aurrerapen-mailatik eta horiek kudeatzen dituzten erakundeetatik abiatuta.


Programak 2007-2013 aldirako aurreikusten dituen jarduketan guztizko aurrekontua 500,4 milioi eurokoa da. EGEF funtsaren bidez, Europako Batzordearen finantziarioa 240,6 milioi eurokoa da, hau da, guztizko aurrekontuaren % 48.

Euskal Herria eskualdeko lehiakortasun eta enpleguari begira Europaren helburuaren barruan kokatzen da eta Programa Eragileak lau lehentasun ditu. Horiei, laguntza teknikorako lehentasuna gehitu behar zaie.

Honako hauek dira lehentasunak: Ezagutzan oinarritutako ekonomia, berrikuntza eta enpresa-espirtuaren garapena (gutzizko inbertsioaren % 72), Ingurumena eta arriskuen prebentzioa (gutzizko inbertsioaren % 3), Energia-baliabideak eta garraio-zerbitzuetara sarbidea (gutzizkoaren % 20) eta Tokiko eta hiriko garapen jasangarria (gutzizko inbertsioaren % 5). 2009aren bukaeran, programaren gauzatze-mailak 50,2 milioiko zenbatekoa du, aldi osorako aurreikusitako % 10a.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/eu/news/2109-direccion-economia-planificacion-del-gobierno-vasco-presidido-comite-seguimiento-del-programa-operativo-feder-del-pais-vasco>



> Europa 2030. Erronkak eta aukerak

Europako Kontseiluak Aditu Talde bati (Felipe González buru dela) eskatutako txostenak adierazten duenez, Europar Batasuna gure historiaren puntu kritikoan dago eta dilema bat du aurrean: erreformatu edo munduko eragile aktibo gisa ahuldu.

Eta nagusiki honako galdera erantzuten saiatzen da: EBk bere oparotasun-mailak mantendu eta handitu ahal izango ditu irudikatzen den mundu horretan? garrantzia izango al du bere balore eta interesak mantentzeko orduan?. Erantzuna baiezkoa da, guztiok batera eta gaurtik aurrera lan eginez gero. Krisiaren aurkako erantzunetan aurrera egin behar da eta epe ertain eta luzera beharrezkoak diren erreformekin lotu behar dira.

Horretarako, lidergo argia eta ausarta behar da, herritarrekin elkarrizketarako gaitasun iraunkorra duena.

Informazio gehiago:

<http://www.consilium.europa.eu/showFocus.aspx?id=1&focusId=473&lang=es>

> Gipuzkoako eta Europar Batasuneko BPGa

Urteko lehen hiruhilekoan, Gipuzkoako BPGa gelditu egin da iazko azken hiruhilekoari dagokionez (Eustat, bolumen kateatuaren indizea). Bi hiruhilekoz segidan hazkunde-indize murrizak izan ondoren gertatu da bilakaera hori (% 0,2 eta % 0,3, hurrenez hurren).


Bestalde, lehen hiruhilekoan EB-27aren ekonomiak aurreko hiruhilekoetako gutxieneko hazkunde-indizeak mantendu zituen. Horrela, hiruhilekoen arteko igoera % 0,2 izan zen, aurreko bien oso antzekoa.

Batasuneko estatu kideen artean, lau herrialderen dinamismo ekonomikoa nagusitzen da, horiek portzentajezko puntu erditik gorako hazkunde-tasak izan baitituzte. Honako herrialdeak dira: Suedia, Hungaria, Eslovakia eta Danimarka.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/cj_ci/elementos/ele0003200/ti_Barne_Prodaktu_Gordina_Jurralde_historikoaren_eta_hiruhilekoaren_arabera_Bolumen-indize_kateatua_2010/tbl0003224_e.html

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-04062010-AP/EN/2-04062010-AP-EN.PDF



KOHESIO-POLITIKA

> Euskal Herriko EGIF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordea: jardunbide egokiak

Maiatzaren 12an, 2007-2013 Euskal Herriko EGIF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordearen bilera egin zen Bilbon. 2009 urtekoari dagokion gauzatzea izan zen landutako gai nagusia.

2009ko urteko txostenean Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako bi proiektu txertatzea erabaki zuen Jarraipen Batzordeak jardunbide egokiaren erreferentzia gisa komunikaziotik abiatuta, Komunikazio-planei jarraipena egiteko eta ebaluatzeko Gidan jasotako irizpide europarrak aplikatzearen arabera.

Plan Orokorrean sartutako bi jarduketan inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak egindako hedapenaren ingurukoak dira jardunbide egoki horiek: hezkuntzaren alorrean kultura ekintzailearen eta kultura digitalaren baloreak sustatzen dituen Kosmodisea programa eta Gipuzkoan emakume ekintzailea laguntzeko Emekin programa.

Informazio gehiago:

<http://www.kosmodisea.net/?l=eu>

<http://www.emekin.net/web/default.asp?idioma=eu>

> Eskualdeko berrikuntzaren gobernantza

Europako Batzordeko Regio Zuzendaritza Nagusiak eskualdeko berrikuntzaren kontzeptua aztertzen duen dokumentua landu du. Dokumentu horretan, Europako 14 eskualde aztertu ditu eta agintariek, eragile nagusiek eta mundu akademikoak eskualdeko berrikuntzaren gobernantza lurraldean aplikatzeko orduan betetzen duten papera aztertu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2010_02_innovation_governance.pdf



> Erkidegoko egiturazko finantziatorako sarbidea: kudeaketa berrikustea

Programen belaunaldi berriaren kudeaketa erraztu asmoz, 2013 urtetik aurrera Batzordeak administrazioaren kudeaketaren kargak arintzeko (sinplifikatzea eta prozedura sinplifikatuei muga handiagoak jartzea) eta ordainketak emaitzen arabera orientatzeko helburua duten hainbat neurri proposatu ditu.

Proposamen horiek xede horretarako egindako kontsulta publikoaren emaitzetan oinarritzen dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/library/consultations/FRconsult2009/Final_Report_FinReg_review_en.pdf

> SUDOE Programa Eragilea: 223 hautagaitza aurkeztu dira

SUDOE Espazioaren Programa Eragilerako proiektuen bigarren deialdia apirilaren 30ean bukatu zen eta 223 hautagaitza jaso dira.

Bigarren deialdia Programaren lau lehentasunetako biren inguruan zabaldu da: Berrikuntza eta Ingurumena. Lehenengorako 141 hautagaitza aurkeztu dira eta bigarrenerako 82.

Bigarren deialdirako FEDER laguntzaren zenbateko erabilgarria 25,4 milioi euro da.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> 2020 agenda digitala

Europako Batzardeak Europarako Agenda Digitala onartu du, hain zuzen ere, 2020era arte IKTekin lotutako ekonomia sustatzeko plana. Europako ekonomia digitala indartzen ari dela eta ekonomiaren sektore guztietara eta gure bizitzan esparru guztietara iristen ari dela adierazten du. Eta azken hamabost urteetan Europak lortu duen ekoizpenaren hazkundearen erdia informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokie.

Europako ekonomiari dagokionez, IKTen sektorearen balio erantsia BPGaren % 4,8an kokatzen da eta I+Gean egindako inbertsio pribatuaren % 25a adierazten du.

Agendak lehentasunezko zazpi helburu ditu: Merkatu digital bakarra, Elkarreragingarritasuna, Internetekiko segurtasuna eta konfiantza, Banda zabala, I+G, Trebetasun digitaletan prestakuntza eta gizarte geruza guztiak Interneten sartzea eta klima-aldaketa eta biztanleriaren zahartzea bezalako erronka berrietan IKTak aplikatzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/information_society/digital-agenda/index_en.htm

http://ec.europa.eu/information_society/newsroom/cf/itemdetail.cfm?item_id=5789

> Industria europarraren erronkak eta aukerak

Europa 2020 testuinguruan, Europako Batzardeak industria-politika berrirako oinarritzko dokumentua landu du eta, urte honetako komunikazioa landu aurretik, dokumentu horrek industria-lehiakortasun europarrerako eragileak eta oztopoak aztertzen ditu.

Sektore gehienetako etorkizuneko elementu nagusiak, beste hainbat elementuren artean, honakoetan oinarritzen dira: nazioarteko merkatuetan dauden aukerak, teknologia eta berrikuntza aprobetxatzea, bereziki teknologia berriak eta IKTak, kualifikazio profesionalak egokitzeko beharra, kudeaketaren hobekuntza eta finantziarako sarbidea, produkzioarako zerbitzuen gero eta garrantzi handiagoa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/industrial-competitiveness/economic-crisis/files/eu_manufacturing_challenges_and_opportunities_en.pdf



> Lehiakortasunaren politika

Europako Batzordearen 2009ko lehiakortasunaren politikari buruzko txostenak, lehiakortasunaren politikaren tresnen garapena eta aplikazioa deskribatzen ditu. Hau da, estatuen laguntzei, lehiaren jardunbide murriztaileen prebentzioari eta kontzentrazioei eta horiek hainbat sektoretan aplikatzeari buruzko arauak deskribatzen ditu.

Ekonomia- eta finantza-krisiari erantzun gisa hartutako nazio-mailako neurrien inguruan Europako Batzordeak egindako ebaluazioari arreta berezia jartzen dio txostenak, nazio-mailako neurriak izan edo finantza-sektoreari dagozkion enpresa zehatzei zuzendutako neurriak izan.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/competition/publications/annual_report/2009/es.pdf



e-LIBURUTEGIA

> Hezkuntza eta prestakuntza 2010

2010eko hezkuntza eta prestakuntza programaren baitan adostutako helburuen atzetik egindako aurrerakuntzak aztertzen ditu txosten honek. Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntzaz osatutako «ezagutzaren triangelu» eraginkorra sortzeak eta herritar guztien gaitasunak hobetzeko laguntzak ezinbestekoak dira hazkunderari eta enpleguari begira, eta baita berdintasunari eta gizarteratzeari begira ere. Atzeraldi ekonomikoaren ondorioz, epe luzeko erronka hauek gero eta premiazkoagoak dira.

Inoiz baino gehiago, munduko merkatuaren baitan Europaren lehiakortasuna berrikuntzaren alorrean dituen eskumen eta gaitasunen, eta ezagutzan oinarritutako eta karbono-isurtze murrizak dituen ekonomiaranzko trantsizio azkarraren menpe dago.

Beharrezkoa da hezkuntzaren eta prestakuntzaren funtzioa indartzea, ezagutzaren triangeluaren oinarri gisa. Berrikuntza eta hazkundera ez dira nahikoak izango, baldin eta haurtzarotik talentua eta sormena sustatuko dituen eta heldutasunean eguneratuko diren ezagutza, gaitasun eta eskumenen oinarri sendorik ez bada.

Eta kalitate handiko hezkuntza- eta prestakuntza-sistema bati bidea emango dioten etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna beharrezkoak dira pertsona guztiek beharrezko gaitasunak eskura ditzaten, bai lan-merkatuari begira nola integrazio sozialari eta herritartasun aktiboari begira.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:117:0001:0007:ES:PDF>

> Gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasuna

Gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunari eta 1971az geroztik diskriminazioaren aurkako borrokari buruzko Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia jasotzen du argitalpen honek.

Kasu bakoitzaren oinarritzko gertakariak eta Justizia Auzitegiaren gaiak eta azken epaiak kontatzen ditu. Argitalpenaren lehen zatia gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunari buruzkoa da, eta bigarrena, aldiz, diskriminazioaren aurkako borrokan oinarritzen da.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=538&type=2&furtherPubs=no>




> Trenbideko garraioaren merkatua: egoera eta etorkizuna

Nazioarteko trenbideko garraioaren hazkundera eta etorkizun oparoa trenbideko merkatua irekitzeari, elkarreragingarritasuna hobetzeki eta trenbideko azpiegitura garatzeari esker sortu dira.

Txostenak merkantzien eta pertsonen garraioa aztertzen du, eta baita horien ezaugarriak eta aukerak, nola jarduera garatzeko oztopoak ere.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/transport/rail/studies/doc/2010_03_situation_and_perspectives_of_the_rail_market.pdf



ADIERAZLEAK

> Zergazko diru-sarrerak Europar Batasuneko herrialdeetan

Eurostateko dokumentuak adierazten duenez, 2008an EB-27aren zergazko diru-sarrerak (gizarte kotizazioak barne) BPGa % 40,5era jaitsi zuten, aurreko urteari dagokionez portzentajezko lau hamarreko atzeraldiarekin. Ratio honen indize altuenak Danimarkak (% 49), Suediak (% 48), Belgikak (% 47) eta Frantziak (% 46) dituzte.

Estatu kide guztiak hiru talde handitan banatzen dira: gizarte kotizazioak (% 34), produkzioaren eta inportazioaren zergak (% 33) eta errentaren gaineko zergak, kontsumoa,...

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-10-023/EN/KS-SF-10-023-EN.PDF

> Gipuzkoako industriaren lurralde-banaketa

Gipuzkoako industriaren lurralde-banaketak eskualde desberdinetan barrena duen presentziaren oreka islatzen du. Horrela, 2008ari dagokionez Eustaten datuen arabera, industriako balio erantsiaren % 30 Donostialdean sortzen da; Goierriin, aldiz, % 18 eta Deba Garaian % 17. Gainerako eskualdeek lurralde osoari egiten dioten ekarpena txikiagoa da: Urola-Kosta (% 12), Tolosaldea (% 9), Debarrena (% 9) eta Bidasoa Beherea (% 5).

Dimensio geografikoari dagokionez, industria gehien duten eskualdeak Deba Garaia eta Goierri dira; Bidasoa Behereak eta Donostialdeak, berriz, industria-ehunaren konparazioa egitean garrantzi txikiagoa dute.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/cj_ci/elementos/ele0006000/not0006084_e.html